

IRAGARKIA

Zeanuriko Udalbatzak, 2018ko azaroaren 28an hurrengoko akordioa hartu ebala:

PROBALEKUAN, LANDETAN ETA PLAZEA 1-6 GUNEETAN APARKAMENDUA ORDENATZEKO PROPOSAMENAREN ONARPENA

Alkateak proposatzen dau, herrigunean , gune zehatz batzuetan (Probalekuan ,Landetan eta Plazea 1 eta 6 artean) aparkamendua ordenatu eta trafikoa erregulatzea.

Hori holan izanda hurrengo erabakiak hartzen dira:

Lehena: Eremu guzti horretan aparkatzea galarazotea.

Bigarrena: Probalekuen , debeku hori, arratsalde izango da.

Hirugarrena: Aipatutako eremuetan etxebizitza dabenei aparkatzeko baimenak emango jakiez. Aurrerago zehaztuko da zelan, nori eta zenbat.

Laugarrena: Eremu hori arautzeko auzotarrakaz bilera egingo da.

Bostgarrena: Neurri honeik indarrean noiz sartuko diren alde z aurretik jakinarazoko da.

Seigarrena:Guzti honen aurrean alegazioak aurkezteko epea zabalitzen da 2018ko abenduaren 31rarte.

Zeanurin, 2018ko azaroaren 30an.

ALKATEA

